

# SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

## 20. BILERA AKTA

EGUNA: APIRILAK 17, LARUNBATA

ORDUA: 9:30

TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ZUMARRA GELA

### BERTARATUAK

GURE ARRANO ELKARTEA  
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA TANTIRUMAIRU IKASTOLA  
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA  
IRAIN GURASO ELKARTEA  
GEROA BAI TALDEA  
IRAIN ESKOLA  
MAIRU ANTZERKI TALDEA  
SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEA  
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA  
LESAKAKO EUSKARA BATZORDEA  
S.C.D.R. BETI-GAZTE K.J.K.E.  
LESAKAKO ABESBATZA  
GILTZARRI ABESBATZA  
MUSIKA ESKOLA  
MUSIKA BANDA  
LESAKAKO SOINULARIAK  
TXISTULARI TALDEA  
ELUTXA TXARANGA  
EH BIDU TALDEA

### AINTZINAKO AKTA ONARTZEA

Onartzen da.

### DIRU-LAGUNTZAK- JUSTIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Aurpegi berriak daudenez, azalpen orokor bat egiten da diru-laguntzen inguruan.

Eztabaida sortu da justifikazioaren inguruan, iaz bezala mantendu, hau da esleitutakoa justifikatzea edo esleitutako 500 € edo gehiago baldin bada esleitutakoa baino %15a gehiago aurkeztu. Erabakia udalan hartuko da bino kultura batzordera Sorginxulo bilgunearen postura eramanen da, beraz bi aukeren artean bozkatzen da.

- **2020AN BEZALA, ESLEITUTAKOA JUSTIFIKATZEA** **10 BOZKA**
- **500 € EDO GEHIAGO ESLEITZEN DENEAN, ESLEITUTAKO JASOTZEKO %15A GEHIAGO JUSTIFIKATZEA** **2 BOZKA**

Banaketaren inguruan, eragileekin eginiko bileretan aurkeztutako zirriborroaren antzekoa izanen da, ez da gehiegi aldatuko.

### LIBURU XURIA

Kulturkaritik maketazio zirriborro bat bidali da eta erakusten da.

Eragile bakoitzak 4 orri A5ean izanen ditu. Hau horrela badaude bi eragile beraien testua laburtu behar dutenak: Trikitilariak eta Arrano. Bertzalde argazki batzuk kalidade eskasakoa dira eta kalidade onean bidaltzea eskatzen da. Kulturakriri zerrenda moduko bat eskatuko da egin behar diren aldaketa hauekin eta eragileei jakinaraziko da.

200 bat ale ateratzea oentsatu da. Honek 1.200 € inguruko kostoa izanen du eta honeri itzultzailearen gastua gehitu behar zaio. Aurrekontuetan 2.000 € partida bat dago.

Idea da eragile bakoitzari ale batzuk banatu eta bertzeak salmentan jarri prezio eskuragarri batean.

## AGENDA

Ibanek Excel taula bat erakusten du. Taula honetan eragin ekonomikoa dutenak bakarrik ateratzen dira, bino hauetaz aparte hainbat ekitaldi aipatzen dira. Hori dela eta, taula edo egutegi oso bat egitea proposatzen da, ekitaldi guztiak biltzen dituen, eragin ekonomikoa izan edo ez, ekitaldi guztiak ikusteko eta ikuspegi orokor bat izateko. Proposamena jasotzen da eta horrelako zerbait eginen da.

Markatu Ttikia aipatzen da, hilabeteko azkeneko larunbatean egitea da intentzioa eta goiza hau girotzeko ere bertzelako ekitaldiak proposatzen ahal direla aipatzen da (ipuinkontalria, musika...).

Haurrentzako ekitaldi pare bat egin dira baina hurrengo hilabeteetan bertzeren bat sartzeko proposamenik dagoen galdetzen da.

Gorria ere hor dago, ekartzeko intentzioa dago, galdetuko da. Enekok aipatzen du azkeneko emanaldiekin dabilzala igual ezin izango dela.

Amua antzerkia udazken aldera ekartzeko intentzioa ere badago. Ikusita aurten momentuz Mairun antzerkia bakarrik egin dela, udazken aldera bi antzerki dexente ekartzea proposatzen da. Hauen artean izan daiteken aukerak, Sisiforen Paperak (hau produkzio haundia da), Atzerrian lurra garratz edo Fadoak entzuten dituen gizona.

Euskal Zirkoa ere aipatzen da, igual hau hurrengo urterako

Muxikoak maiatzan saioaren bat eginen dutela aipatzen da.

Uztailaren 3an Tantirumairu Dantza Taldearen emanaldi bat.

Udako zikloaren inguruan, hasiera batean datak uztailaren 16-17tik irailaren 18-19ra. Momentuz bi ekitaldi daude hitzartua, Txamukos eta Iñaki diegez. Ainara Ortegakin harremanetan jarri da bino aurrekontua nahiko altua pasa du. Zikloko emanaldiak zehazten joan behar da.

## KEZKAK ETA GALDERAK

Hurrengo Sorginxulo maitzaren 8an aurreikusita dago, hemendik hiru astetara. Maiatzakoa ez egin eta hurrengo ekainaren 5ean egitea aipatzen da. Azkenean maiatzako atzeratu eta ekainakoa aurreratzea adoste da eta hurrengo **maiatzaren 22an** izanen da.